

LUMA BERRIEN AZTARNAK



Ilustrazioa: **Kristina Fernandez**

Iñaki Dorronsoro Maioz

Iñaki Dorronsoro Maioz (Ataun, 1994) euskara irakaslea da ofizioz, idazlea afizioz, eta pandero jolea, eta kontalaria, eta pirata... Orrialde artean gorde zaigu orain, eta hor ari da istorioak eratzen, han-he-menka.

Itzi Dorronsoro Maiz

Ezkutuan



Kaka zaharra, gerturatzen ari ditun. Azkenekoa baino ezkutaleku hobia dun, baina ez zagon betiko gordetzerik. Lehenago edo geroago, denak harra-
patzen ditizten. Maider eraman di-
ten, baita Txomin ere. Maddi? Aus-
kalo non dabilen, ziurrenik hura ere
atzemango zitenan. Banan-banan
ari zarete erortzen, agian heu
izango haiz betikoetako azkena.
Egoitz beste aldera pasa dun, naz-
katuta zegonan beti galtzeaz. Ttu.
Ahula. Orain bakarrik hago, hasibe-
rri batzuk salbu...

Entzun! Oihuak, kexak, nega-
rren bat. Beste gizagaixoren bat
harrapatuko zitenan. Alferrik dun,
ez zeudenan prest. Eskerrak, au-
kera sortu bezain pronto egin dun
lasterka, bestela orain haiekin
hintzen, gatibu bat gehiago, edo...
Mukizu horiekin abiatzea ere...
Nolatan onartu dun? Bahekinen
ez zutela aukerarik, galbidera era-
man ditun. Eta heuri ez zain asko
falta izan atzetik joateko. Kaka,
etxean gelditu behar zitenan,

hau ez dun eurentzako jolasa.

Negar zotinak ez ditun isiltzen. Agian nahita utzi diten
hala, beste iheslariren bat kupitzeko. Tarteka, amesten dun
iheskideak askatzearekin, gauären babesean haien lerroen
atzera pasa, eta... Baina ez, ondotox dakin zer dagoen jokoan,
bazekitenan haiek ere. Orain arte iraun badun ez dun izan
mundua salbatu nahi izateagatik. Ez, ez zagon heroirik.

Mugi. Ez zagon gelditzerik, ez toki berean. Izkinek azkar
galtzen diten segurantza. Aurreko paretan itzalak, deiak,
mehatxuak, farola baten argitan. Uzurtu burua, egin txiki-
txiki, ilunetan ikusi ez hazaten. Itzalak handitzen ari ditun,
oihuak hurreratzen. Aditzen? Zaila dun bihotz taupadekin,
beraiek ez entzutea ere... Ez ahal haute arnas hotsek salatuko,
azkenean! Zikin horiek, ez haute harrapatuko. Ez dun hire
lehen ihesa, ezta hurrik eman ere, eta ez dun azkena izango.

Farolaren argia gero eta gehiago betetzen diten itzalek,
hoa beste norabait. Badun garaia. Apurka-apurka, paretari
lotuta, atzera. Urrundu izkinatik, kale kantoi hori jada ez
dun segurua. Kontuz ibili, badakin zer gertatzen den harra-
patzen hautenean... Eta korri. Korri makurtuta, burua sor-
balda artean ezkutatuta, eta itxaro ez dezala inork ikusi irudi
txiki bat zeruaren kontra. Behintzat, gaur ez zagon ilargirik.

Gatazka hau ez dun inongo telebistatan aterako, jendeak
bestelako kezkak ditin. Ziur lehengusu Jokin futbol kon-
tuetan dabilela, itsu hori. Jolas bat omen dun batzuentzat,
ez zakiten zer dagoen jokoan. Inoiz ez zarete protagonista
izango, beti egongo dun handiagoren bat, begiradak jasoko
dituena. Antzarrak ferratzera, hau ez duzue txaloengatik
egiten, inork ulertu ez arren.

Horra, auto artera, bizkor! Kontuz! Hori kolpe ergela,
neur ezan heure burua! Zarata ez ahal zinan beste inork
entzungo... Baretu arnasestuak, ez ditun urrun-eta. Urra-
tuak sutan zirudin. Kosk egin ezpainei, egin negar, edozer,
baina eutsi minari; uzten badion, gain hartuko din, eta or-
duan bai, akabo. Behintzat ezkutaleku ona daukan, har de-
zaken atsedan.

Auto arteak ditun ezkutalekurik onena ilunetan. Inork
ez ditin tarte guztiak begiratzen, eta norberaren irudia erraz
nahasten dun ibilgailu artean. Kapota bati itsatsi eta galdi-
geldi egotean zagon koska. Eta arnasari heldu, ez dezala
inork hire gorputz txikia antzeman.

Gainera, urde horiek arau guztiak urratzen ditizten. Je,
arauak... Oso ondo zauden paper gainerako, baina ondotox
dakin hemen, kalean, gauzak bestelakoak direla. Utikan
tratuak, hitzarmenak. Norberaren ezkutatzeko abileziak
baino ez din salbatzen iheslaria. Eta zoriak, hori beti komeni
dun alde izatea.

Berriro oihuak. Hemen ere lasai egoterik ez? Putza, ge-
rrikoa estutzen ari ditun, azkenean ezingo dun ezkutuan
segi. Kale edo bale, bertan segi edo hanka, oraintxe erabaki
behar dun. Hobe lekuz aldatzea, hango zaborrontzien ar-
tean ez haute nabarmenduko. Kaka zaharra, nolatan hain-
beste hire atzetik? Gainerako guztiak harrapatuko zitizte-
nan. Denbora kontua zunan, oraindik oso gazteak zitunan.

Mutilaren aurpegia, oroitzen? Bere onetik aterea zegonan,
arnasestuka, malkoak begietan. Ez zunan gauza mugitzeko
ere, halako izua zinan. Hi saiatsu haiz azaltzen handik atera
behar zenutela, berehala zenituztela bertan, baina hark bu-
ruarekin ezetz, begiak ia aterata, ez joateko erreguka... kaka
zaharra, bere esku zegonan, berak nahi izan din! Egin behar
huena egin dun: heu salbatu. Zorionez, ezin izan din oihurik
ere egin harrapatu dutenean, ez din salatu nondik joan hai-
zen. Babo alaena, hirekin etorri besterik ez zinan...

Ia gainean ditun; akabo, bazirudin oraingoan hireak egin
duela. Putza! Ez hituen autoak utzi behar. Zertan ari hintzen
pentsatzen? Kontzentrazioa galdu dun, eta ordaintzea to-
katzen dun. Orain jada berandu dun, ez zagon bazterrik, ez
zagon itzalik ezkutatzeko. Oin hotsak. Oin hotsak, gero eta
gertuago. Hementxe ditun...

- Mirenengatik!

- Ez din balio, gaizki kontatu dun! Txutxupei!